

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Gipuzkoako Ur Kontsortzioa**

**Consortio de Aguas de Gipuzkoa**

**2021**





## AURKIBIDEA

LABURTZAPENAK.....	5
I. SARRERA .....	7
II. IRITZIA .....	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia .....	8
II.2 Urteko Kontuei buruzko iritzia .....	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK .....	9
III.1 Kontularitzako eta kontroleko alderdiak .....	9
III.2 Pertsonaleko gastuak.....	9
III.3 Ondasunak eta zerbitzuak kontratatzea.....	10
IV. URTEKO KONTUAK.....	12
IV.1 Gipuzkoako ur kontsorzioaren urteko kontuak.....	12
IV.2 Gipuzkoako Urak SAUren urteko kontuak .....	14
IV.3 Kontu bateratuak .....	15
ERANSKINAK .....	17
A.1 Araudi aplikagarria .....	17
A.2 Aurrekontua, aurrekontuko aldaketak eta konpromiso-kredituak .....	18
A.3 Ibilgetua eta dirulaguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak .....	19
A.4 Atxikipenean jasotako ondarea eta lagatako ondarea .....	20
A.5 Ondare garbia eta taldeko enpresekiko inbertsioak eta saldoak .....	21
A.6 Epe luzeko hornidurak .....	22
A.7 Kreditu erakundeekiko zorrak.....	22
A.8 Negozio zifraren zenbateko garbia .....	23
A.9 Hornidurak eta ustiapeneko bestelako gastuak.....	24
A.10 Pertsonaleko gastuak.....	24
A.11 Aurrekontuaren eta ondare-emaitzaren arteko kontziliazioa .....	26
A.12 Ondasunen eta zerbitzuen kontratazioa.....	26



Herri Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ÍNDICE

ABREVIATURAS .....	29
I. INTRODUCCIÓN .....	31
II. OPINIÓN .....	32
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	32
II.2 Opinión sobre las Cuentas Anuales .....	32
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....	33
III.1 Aspectos contables y de control .....	33
III.2 Gastos de personal .....	33
III.3 Contratación de bienes y servicios .....	34
IV. CUENTAS ANUALES .....	36
IV.1 Cuentas Anuales del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa .....	36
IV.2 Cuentas Anuales de Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, SAU .....	38
IV.3 Cuentas consolidadas .....	39
ANEXOS .....	41
A.1 Normativa aplicable .....	41
A.2 Presupuesto, modificaciones presupuestarias y créditos de compromiso .....	42
A.3 Inmovilizado y subvenciones, donaciones y legados recibidos .....	43
A.4 Patrimonio recibido en adscripción y patrimonio cedido .....	44
A.5 Patrimonio neto e inversiones y saldos con empresas del grupo .....	45
A.6 Provisiones a largo plazo .....	46
A.7 Deudas con entidades de crédito .....	46
A.8 Importe neto de la cifra de negocios .....	47
A.9 Aprovisionamientos y otros gastos de explotación .....	48
A.10 Gastos de personal .....	48
A.11 Conciliación resultado presupuestario-patrimonial .....	50
A.12 Análisis de contratación de bienes y servicios .....	50

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 30a

Vitoria-Gasteiz, 30 de marzo de 2023



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURTZAPENAK

EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
Kontsortzioa	Gipuzkoako Ur Kontsortzioa.
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia.
HUA	Hondakin-uren Araztegia.
EUTE	Edateko Uren Araztegia.
GUSA	Gipuzkoako Urak SAU.
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
PIH	Arautze harmonizatuari lotutako prozedura irekia.
AZL	Prozedura Ireki Sinplifikatua.
HKEE	Herri Kontuen Euskal Epaitegia.





## I. SARRERA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta 2021erako Lan Programan erabakitakoari jarraikiz, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren 2021eko ekitaldiaren Kontu Orokorren fiskalizazioa mamitu du. HKEEk egindako Kontsortzioaren Kontu Orokorren aurreko fiskalizazio lana 2018ko ekitaldiaren gainkoa izan zen.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezkoak: Honako atal hauetan: aurrekontua, langileria, obren kontratazioa, hornidura eta zerbitzuak eta zuzenbide publikoko sarrerei buruzko arautegia. Azterketa-lan hau fiskalizazio-gai den ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea eragotzi gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelakoan.
- Kontularitzakoak: Kontsortzioaren kontuak, Gipuzkoako Urak SAUren kontuak eta kontu bateratuak aplikagarriak diren kontularitzako printzipioen arabera gauzatu diren aztertuko dugu. Bi erakundeen kontuak eta kontu bateratuak kanpoko enpresa batek auditatu ditu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasunari eta efizientziari buruzko analisia barne hartzen. Hala ere, aurkitu diren akatsak “Barne kontroleko sistemai eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak” epigrafean azaldu dira xehetasunez.

Kontsortzioaren helburua lehen mailako sareetan ura hornitzeko azpiegitura ezarri eta ustiatzea eta dagozkion zerbitzuak ematea da.

Kontsortzioak bere helburuak garatzeko mendeko duen GUSA sozietatearen bitartez dihardu, zeinaren akzioen % 100en jabetza baitu; GUSAk Altako sareko hornidura eta saneamendua, Bajako sarean erabiltzaileen kudeaketa eta banaketaren ustiapena, eta Kontsortziora atxikitako udalerrien estolderia eta saneamendu zerbitzuak ematen ditu, Kontsortzioak horretarako lagatako instalazioen bitartez.

Kontsortzioaren jardun-eremua 2021eko abenduaren 31n 76 udalerritara zabaltzen da, 345.194 biztanle guztira, 2021eko ekitaldiko Kontu Orokorrean jasotako informazioaren arabera. Batzar Orokorrean guztira 269 boto ematen dira; horietatik 67 GFari dagozkio eta gainerakoak 76 udalerrien artean banatzen dira, bakoitzaren biztanleriaren arabera.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Kanpoko enpresa espezializatuek egindako langileen hautaketak -GUSAK osatutakoak- euskarritzen dituzten agiriek ez dute egiaztatzen uzten berdintasun eta merezimendu printzipioak bete diren (ikus A.10 eranskina).
2. GUSAKo langile finkoen kontratazioak gainditu egin du 2020ko eta 2021eko ekitaldietan, Estatuko aurrekontu orokorren legetan ekitaldi horietarako ezarritako langileen birjarpen-tasa, bi eta bost lan-kontratu finko gehiago, hurrenez hurren (ikus A.10 eranskina).
3. GUSAK 2021eko ekitaldian kontratazio-espedienterik izapidetu gabe 613.451 eta 614.201 euroren gastuak gauzatu ditu. Gastu horiek prozedura ireki eta ireki sinplifikatuen bidez izapidetu behar ziratekeen, hurrenez hurren (ikus A.12.2 eranskina).

Epaitegi honen iritzira, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren Kontu Orokorra osatzen duten entitateek, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan adierazitako GUSAK egin dituen ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete dute 2021eko ekitaldian ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen duen lege arautegia.

### II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Ondasunen erabilera lagatzeari dagokionez, GUSAK kontsortzioarekin izenpetutako emakida akordiotik eratorritako konpromiso hartuetatik datozen obligazioak islatzeko erregistratu dituen hornidurak (60,9 milioi euro 2021eko abenduaren 31n), balioespenetan daude oinarrituak eta, zati batean, hirugarrenen txosten teknikoetan eta aurrekontuetan. Nolanahi den ere, ez dituzte aintzat hartu eguneratze finantzarioaren ondorioz sor litezkeen doiketak eta ez dute horren eraginaren zenbatespenik (ikus A.6 eranskina).

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoan adierazitako GUSARI dagokion salbuespena alde batera, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren eta Gipuzkoako Urak SAUren kontu orokorrek eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren urteko kontu bateratuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2021eko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.





### **III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK**

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

#### **III.1 KONTULARITZAKO ETA KONTROLEKO ALDERDIAK**

- Kontsortzioaren web-orrian ez dago gardentasunari buruzko atalik, erakundearen, antolamenduaren eta plangintzaren informazioari eta ekonomia eta aurrekontuen informazioari buruzko edukiak jasoko dituenik.
- 7,5 milioi euroren konpromiso-kredituen egoera-orriak ez du aurrekontua gauzatzeko faseari buruzko informaziorik ematen, eta 4,1 milioi euroren lau inbertsio barne hartzen ditu, 2021ean eta 2022an hasi gabeko obrak dituztenak.
- Partzuergoaren Urteko Kontuen Memoriak 8,3 milioi euroren konpromisoen berri ematen du. Konpromiso horiek sei inbertsiori dagozkie, eta EAEk, GFak eta Kontsortzioak, besteak beste, 2007an sinatutako Esparru Akordioan jasota daude. Horientzat, baina, ez da sinatu hura gauzatzeko eta finantzatzeko dagokion hitzarmena. Gure ustez, erakundeen konpromisoak eta jarduteko egutegia zehaztu behar dira, Kontsortzioak gauzatu beharreko inbertsioen aurrekontuak behar bezala aurreikus ditzan.
- Kontsortzioak ez du langilerik eta kontu-hartzaitza lanak GUSAk gerenteak egiten ditu. Gogoan hartuta Kontsortzioa GFari atxikia dagoela eta aurrekontu, kontabilitate eta kontrolari buruzko foru araudiari meneratua, iruditzen zaigu GFari eskatu beharko litzaiokeela Kontsortzioko kontu-hartzailea izendatzea, egiteko horiek betetzeko GFAn gaituak dauden langileen artean.

#### **III.2 PERTSONALEKO GASTUAK**

- 2021eko ekitaldiko aurrekontua onartzeko Batzar Orokorrera bidalitako dokumentazioan jasotako GUSAREN aurrekontu-plantillak 236 plaza barne hartzen ditu, baina ez dago plaza horien banakako xehakapenik ez eta plaza finko eta aldi baterako kopuruari buruzko informaziorik ere. Urteko aurrekontuaren azalpen-memoriak pertsonaleko eranskin bat izan beharko luke, lanpostu finkoak, okupatuak edo hutsik daudenak identifikatuko dituenak, eta, bestalde, plaza bat okupatzen ez duten aldi baterako langileen kontratazioak betetzeko aurrekontuko izendapenak.
- GUSAk enpresaren eta langileen artean sinatutako hitzarmen kolektiboetan aurreikusitako urteko ordainsari-igoerak aplikatzen ditu. 2019-2021 aldian, sektore publikorako aurrekontuko araudian aurreikusitakoak baino ordainsari-igoera txikiagoak aplikatu dira, eta 2022an, berriz, aplikatu den ordainsari-igoerak, aurreko ekitaldietakoak metatuta, aipatutako araudian aurreikusitako maximoak aplikatzearen ondoriozko ehunekoa gainditu du. Nahiz 2022an onartutako igoeraren aplikazioari esker, 2019-2021 aldian aplikatutako igoera txikiagoak berreskuratu diren, gehiegizko igoera hori finkatu



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

egingo da etorkizuneko ekitaldietan. Horri dagokionez, enpresak sinatutako hitzarmen kolektiboetan ezarri beharko litzateke ordainsarien igoerak araudiak ezarritako gehienekoen mende daudela.

- Aldi baterako langileak kontratatzeke GUSAREN lan-poltsa egiteko, ez da hautagaien lehenetsun-hurrenkera ezartzea ahalbidetzen duen balorazio-irizpiderik zehaztu.

### III.3 ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK KONTRATATZEA

GUSAK ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeari dagokionez, honako alderdi hauek nabarmendu nahi ditugu:

- GUSAK Partzuergoaren bitarteko propio pertsonifikatu izaera du, SPKLren 32. artikulua agindutakoari jarraikiz. Delako izaera hori GUSAREN estatutuaren islatu behar litzateke eta Kontratazio Plataforman argitaratu.
- GUSA botere esleitzalea da, Administrazio Publiko izaera gabea, eta honenbestez, SPKLren 316tik 320ra bitarteko artikuluek arautzen dute berariaz. Honela, bada, ez dira beharrezkoak kontratazio barne jarraibideak, izan ere legeak horiek aurreikusten ditu botere esleitzale izaera ez duten sektore publikoko entitateentzat. Alabaina, GUSAREN kontratazioaren profilak barne hartzen dituen kontratazio barne jarraibideak ez zaizkio SPKL berriari egokitzen, ez baitute jasotzen botere esleitzaleei ezargarriak zaizkien artikuluen mandatua.
- GUSAK ez ditu kontratu txikien kontratazio espedienteak izapidetzen, eta izaera orokorreko zenbait eskaintza eskatu ostean, dagozkion fakturak erregistratu baizik ez du egiten. Dagozkion espedienteak izapidetu behar direla uste dugu eta kontratazio atalak txostena egin behar duela, kontratuaren beharra arrazoituz, gastua onartuz eta kontratazio arau orokorrak saihesteko kontratuaren xedea ez dela eraldatu justifikatuz. Azkenik, kontratu txikiak kontratazioaren profilean argitaratu behar dira, gutxienez hiruhilean behin.

GUSAREN kontratazio espedienteak aztertu ditugu eta honako alderdi orokor hauek bereizi ditugu:

- Kontratazioaren profilak ez du jasotzen kontratuei buruzko dokumentazio eta informazio guztia, besteak beste: espedientea hasteko ebazpena, balio-iritzien bidez kuantifikatu daitezkeen esleipen-irizpideen balorazio-txostena, kontratua esleitzeko ebazpena eta kontratua bera.
- SPKLk kontratua justifikatzeko memoria bat egitea eskatzen du, eta, horrez gain, besteak beste, erregulazio harmonizatuari lotutako kontratuei dagokienez, honako hauek justifikatzeko ere bai: kaudimen tekniko edo profesionaleko, ekonomikoko eta finantzarioko irizpideak, kontratua esleitzeko kontuan hartuko diren irizpideak, prezio-irizpidea baloratzeko erabilitako formulak, eta lotetan ez banatzeko arrazoia. Aztertu diren espedienteetan ez dago halako justifikazio-agiririk eta honenbestez, komenigarria litzateke aurreikuspen horiek jasoko dituen agiri edo memoria bat egitea.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Obren kontratuetan, baldintza-agiriek % 50eko azpikontratazioa aurreikusten dute gehienez (% 60koa, batean), eta kontratazio-espeditetan ez dira justifikatzen azpikontratatu ezin diren zeregin kritikoak.
- Ez dago jasota lizitatzaillei esleipen-ebazpenaren jakinarazpen arrazoitua eman zaienik.

Hona hemen kontratazio-espediten berrikustean azaleratu diren beste alderdi batzuk (ikus A.12.1):

- Lohiak tratatzeko espedita (3. espedita) unitateko prezioen arabera esleitu da eta lau urterako 2,2 milioi euroren esleipen-aurrekontu zenbatetsia du; espeditetan, baina, administrazio-klausula partikularren agiriek ez dituzte xehakatu zuzeneko eta zeharkako kostuak eta lizitazioaren oinarriko aurrekontua zehazteko kalkulatuak beste balizko gastu batzuk, eta, gainera, prezioak urtero berrikusteko klausula bat ezartzen dute, KPIren arabera. Aurreikuspen hori ez dator bat araudiarekin, zeinak indizeak prestazioen kostuei loturik baino ez baititu jasotzen. Preskripzio teknikoaren agiriek instalazio berriak gehitzeagatik aldaketak aurreikusten dituzte, jo daitezkeen gehieneko ehunekoak zenbatetsi gabe.
- 1,4 milioi euroan esleitutako kontratazio-espedita batean (8. espedita) lizitatzaillearen kaudimenari buruzko alderdiak erabiltzen dira esleipen-irizpide gisa (eraikuntzako erreferentziak, kalitate- eta ingurumen-ziurtagiriak...).
- Esleipen-irizpide bakarra prezioa duten bi kontratazio-espeditetan (5. eta 10. espeditak), guztira 520.429 euroan esleitutakoetan, esleipendunaren eskaintza ausarkeriazkotzat jo behar zen, Kontratazio Erregelamenduan ezartzen denari jarraikiz, administrazio-klausulen agirietan ez baitira aurreikusi eskaintza bat anormaltzat jotzeko parametro objektiboak.
- 1,8 milioi euroan esleitutako obrak kontratatze hiru espeditetan (8, 10 eta 11 zk. espeditak), obren azken likidazioetan esleipenean aurreikusi ez ziren 569.636 euroren obra-unitateak barne hartu dira, eta ez da horretarako aldaketarik izapidetu.
- Aztertutako errektiboak hornitzeko hiru espeditetan (4, 6 eta 9 zk. espeditak), aleko prezioen arabera esleitutakoetan, ez dira kontratuaren balio zenbatetsietan sartzen pleguetan aurreikusitako luzapenak; horrek, baina, ez du eraginik izan erabilitako kontratazio-prozeduran.

### Kontratazio espediten gabeko gastua

Kontratazio-espediten gabeko gastuen berrikuspenean, zazpi gastu-kontzeptu hauteman dira, guztira 333.985 eurorenak, zeinetarako helburuaren homogeneotasunagatik eta gastuaren zenbatekoagatik, gutxienez, prozedura ireki sinplifikatu laburtuak egin behar ziratekeen (ikus A.12.2).

**IV. URTEKO KONTUAK****IV.1 GIPIZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN URTEKO KONTUAK****IV.1.1 AURREKONTUKO KONTUAK****A. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2021** Euroak milakotan

Diru-sarrerak	Eranskina	Aurrekontua			Eskubide aitortuak	Kobr.	Ordain. gabe
		Hasierak.	Aldak.	Behin bet.			
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	A8	8.160	-	8.160	8.100	2.208	5.892
5.- Ondare sarrerak .....		1	-	1	-	-	-
8.- Pasibo finantzarioak .....	A2	-	1.858	1.858	-	-	-
<b>SARRERAK, GUZTIRA</b>		<b>8.161</b>	<b>1.858</b>	<b>10.019</b>	<b>8.100</b>	<b>2.208</b>	<b>5.892</b>
GASTUAK	Eranskina	Aurrekontua			Obligazioak aitortuak	Ordaink.	Ordain. gabe
		Hasierak.	Aldak.	Behin bet.			
2.-Ondasun eta zerbitz. gastu korronteak .		40	-	40	11	11	-
3.-Pasibo finantzarioak .....		120	-	120	16	16	-
6.- Inbertsio errealak .....		1.327	461	1.788	377	372	5
7.- Kapital transferentziak .....		1.232	1.397	2.629	933	933	-
9.-Pasibo finantzarioak .....	A7	5.442	-	5.442	5.427	5.427	-
<b>GASTUAK, GUZTIRA</b>		<b>8.161</b>	<b>1.858</b>	<b>10.019</b>	<b>6.764</b>	<b>6.759</b>	<b>5</b>

**B. EKITALDI ITXIEN HONDAKINEN LIKIDAZIOA** Euroak milakotan

	Hasierak. zorra	Baliog.	Kobr./ ordaink.	zorra amaitua
Zordunak .....	4.404	-	(4.404)	-
Hartzekodunak .....	-	-	-	-

**C. AURREKONTUAREN EMAITZA 2021** Euroak milakotan

Eskubide aitortuak .....	8.100
Obligazio aitortuak .....	(6.764)
<b>EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA</b>	<b>1.336</b>
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako obligazio aitortuak .....	807
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA DOITUA</b>	<b>2.143</b>

**D. DIRUZAINZTA GELDIKINA 2021.12.31N** Euroak milakotan

Funts likidoak .....	1.690
Aurrekontuko kobratzeko dauden eskubideak .....	(*) 7.130
Aurrekontutik ordaintzeke dauden obligazioak .....	(5)
Hartzekodun ez-aurrekontukoak .....	(931)
<b>DOITUTAKO DIRUZAINZTA GELDIKINA</b>	<b>7.884</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako diruzaintza-geldikina .....	(828)
Diruzaintza Geldikina, finantzaketa kredituen txertaketa bidez .....	(1.707)
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZTA GELDIKINA</b>	<b>5.349</b>

(\*) Kopuru honek aurrekontuko eta aurrekontuz kanpoko zordunak barne hartzen ditu.

**E. KONPROMISO KREDITUEN EGOERA 2021.12.31N** Euroak milakotan

Desjabetzeak eta GFArekiko eta URArekiko hitzarmenak (ikus A.2 eranskina)	7.475
---	-------



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## IV.1.2 ONDARE KONTUAK

A. Egoeraren Balantzeak 2021 eta 2020ko abenduaren 31n				Euroak milakotan			
	Eranskina	2021	2020		Eranskina	2021	2020
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>		<b>7.324</b>	<b>6.379</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>A5</b>	<b>(49)</b>	<b>(7.756)</b>
Ibilgetu materiala.....	A3	1.480	535	Ondarea .....		206	206
Taldeko enpresetan inbertsioak.....	A5	5.844	5.844	Atxikipenean jasotako ondarea .....	A4	98.491	98.491
				Aurreko ekitaldien emaitza .....		118.192	110.236
				GUSArri lagatako ondarea.....	A4	(224.912)	(224.792)
				Ekitaldiaren emaitza.....		7.354	7.835
				Dirulag., dohain. eta jasot. legat. ....	A3	620	268
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>		<b>8.820</b>	<b>7.558</b>	<b>PASIBO EZ-KORRONTEA</b>		<b>9.530</b>	<b>15.257</b>
Merkat zordunak eta bestel. knt .....		7.130	5.329	Epe luzeko zorrak .....	A7	8.287	14.013
Eskud. & b. aktibo likido baliok. batz.		1.690	2.229	Taldeko enpresekiko zorrak.....	A5	1.243	1.244
				<b>PASIBO KORRONTEA</b>		<b>6.663</b>	<b>6.436</b>
				Epe lab. zorrak.....	A7	5.732	5.427
				Merkat zordunak eta bestel. knt ....		931	1.009
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>		<b>16.144</b>	<b>13.937</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA</b>		<b>16.144</b>	<b>13.937</b>

B. 2021eko eta 2020ko ekitaldietako galera-irabazien kontuak			Euroak milakotan	
	Eranskina	2021	2020	
Zerga-sarrerak .....	A8	8.100	8.000	
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....		(719)	(121)	
Ustiapeneko beste gastu batzuk .....		(26)	(35)	
Beste emaitza batzuk .....		-	3	
<b>USTIAPENAREN EMAITZA</b>		<b>7.355</b>	<b>7.847</b>	
Gastu finantzarioak.....		(1)	(12)	
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>		<b>(1)</b>	<b>(12)</b>	
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>		<b>7.354</b>	<b>7.835</b>	



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## IV.2 GIPUZKOAKO URAK SAU-REN URTEKO KONTUAK

### A. Egoeraren Balantzeak 2021 eta 2020ko abenduaren 31n

Euroak milakotan

	Eranskina	2021	2020		Eranskina	2021	2020
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>		<b>415.854</b>	<b>424.726</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>A5</b>	<b>399.490</b>	<b>407.742</b>
Ibilgetu ukiezina .....	A3	399.318	409.000	Kapitala .....	A5	2.486	2.486
Ibilgetu materiala .....	A3	15.278	14.467	Erreserbak.....		561	561
Taldeko enpresetan inbertsioak .....	A5	1.243	1.244	Aurreko ekitaldietako emaitzak .....		(4.070)	(4.838)
Epe luzeko inbertsio finantzarioak .....		15	15	Bazkideen beste ekarpen batzuk ....	A5	3.358	3.358
				Ekitaldiaren emaitza.....		498	768
				Dirulag., dohain. eta jasot. legat.....	A3	396.657	405.407
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>		<b>61.264</b>	<b>56.576</b>	<b>PASIBO EZ-KORRONTEA</b>		<b>64.292</b>	<b>60.448</b>
Izakinak .....		919	884	Epe luzeko hornidurak .....	A6	64.289	60.434
Merkat zordunak eta bestel. knt.....		16.583	17.590	Epe luzeko zorrak .....		3	14
Epe laburreko finantza inbertsioak.....		33.901	9.804	<b>PASIBO KORRONTEA</b>		<b>13.336</b>	<b>13.112</b>
Aldizkatzeak epe laburrera .....		1.878	1.719	Epe laburreko hornidurak.....		294	279
Eskud. & b. aktibo likido baliok. batz. ...		7.983	26.579	Epe lab. zorrak.....		423	381
				Merkat zordunak eta bestel. knt.....		12.619	12.452
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>		<b>477.118</b>	<b>481.302</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA</b>		<b>477.118</b>	<b>481.302</b>

### B. 2021eko eta 2020ko ekitaldietako galera-irabazien kontuak

Euroak milakotan

	Eranskina	2021	2020
Negozio zifraren zenbateko garbia .....	A8	41.495	41.101
Enpresak aktiborako egindako lanak .....		128	155
Hornidurak.....	A9	(4.097)	(4.046)
Bestelako ustiaketa-sarrerak .....		15	29
Pertsonaleko gastuak .....	A10	(12.461)	(11.996)
Ustiapeneko beste gastu batzuk .....	A9	(22.680)	(22.584)
Ibilgetua amortizatzea .....	A3	(12.592)	(12.734)
Ibilgetu ez finantzarioko dirulaguntzak egozteak.....	A3	10.753	10.871
Beste emaitza batzuk .....		(63)	(19)
<b>USTIAPENAREN EMAITZA</b>		<b>498</b>	<b>777</b>
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>		<b>-</b>	<b>(9)</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA, ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKOIA</b>		<b>498</b>	<b>768</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>		<b>498</b>	<b>768</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### IV.3 KONTU BATERATUAK

#### A. Egoeraren Balantze Bateratuak 2021 eta 2020ko abenduaren 31n Euroak milakotan

	Eranskina	2021	2020		Eranskina	2021	2020
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>		<b>416.092</b>	<b>424.019</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>A5</b>	<b>393.597</b>	<b>394.142</b>
Ibilgetu ukiezina .....	A3	11.252	13.208	Kapitala .....		206	206
Ibilgetu materiala .....	A3	404.824	410.794	Erreserbak.....		83.089	76.572
Epe luzeko inbertsio finantzarioak .....		16	17	Ekitaldiaren emaitza.....		6.362	6.517
				Dirulag., dohain. eta jasot. legat.....	A3	303.940	310.847
				<b>PASIBO EZ-KORRONTEA</b>		<b>72.580</b>	<b>74.461</b>
				Epe luzeko hornidurak .....	A6	64.289	60.434
				Epe luzeko zorrak .....		8.290	14.027
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>		<b>62.955</b>	<b>58.804</b>	Taldeko enpres. jasotako kredituak		1	-
Izakinak .....		919	883	<b>PASIBO KORRONTEA</b>		<b>12.870</b>	<b>14.220</b>
Merkat zordunak eta bestel. knt.....		16.583	17.590	Epe laburreko hornidurak.....		294	279
Epe laburreko finantza inbertsioak.....		33.900	9.804	Epe lab. zorrak.....		6.155	5.808
Aldizkatzeak epe laburrera .....		1.879	1.719	Merkat zordunak eta bestel. knt.....		6.421	8.133
Eskud. & b. aktibo likido baliok. batz. ...		9.674	28.808				
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>		<b>479.047</b>	<b>482.823</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA</b>		<b>479.047</b>	<b>482.823</b>

#### B. 2021eko eta 2020ko ekitaldietako galera-irabazien kontu bateratuak Euroak milakotan

		2021	2020
Negozio zifratik zenbateko garbia .....		41.495	41.101
Enpresak aktiborako egindako lanak .....		128	155
Hornidurak .....		(4.097)	(4.046)
Bestelako ustiaketa-sarrerak .....		15	29
Pertsonaleko gastuak .....		(12.461)	(11.996)
Ustiapeneko beste gastu batzuk .....		(14.607)	(14.619)
Ibilgetua amortizatzea .....	A3	(12.592)	(12.734)
Ibilgetu ez finantzarioko dirulaguntzak egozteak.....	A3	8.545	8.663
Beste emaitza batzuk .....		(63)	(15)
<b>USTIAPENAREN EMAITZA</b>		<b>6.363</b>	<b>6.538</b>
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>		<b>(1)</b>	<b>(21)</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA, ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKOIA</b>		<b>6.362</b>	<b>6.517</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>		<b>6.362</b>	<b>6.517</b>







Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ERANSKINAK

### A.1 ARAUDI APLIKAGARRIA

Kontsortzioko Estatutuek zera agintzen dute:

- Urriaren 1eko Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 120. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, Kontsortzioa Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikita geratu da. Foru araudiak zehaztuko du atxikipen horren edukia eta zabala (3.2 art.), zeinak, besteak beste, honako hauek xedatzen baititu:
  - Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikitako partzuergoak foru arau erregulatzailean eta hura garatzeko araudian jasotako aurrekontu, finantza, kontabilitate eta kontrol araubideari meneratuko zaizkio.
  - Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikitako partzuergoen aurrekontuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorraren zati dira.

Dena den, Foru Aldundiari atxikita dauden baina Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 120. artikularen 2. puntuko a) letratik e) letrara bitartean jasotako zirkunstantzietako bat ere ez gertatzeagatik haren erabaki ahalmenari lotuta ez dauden partzuergoen aurrekontuak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorren barruan sartuko dira, Ogasun eta Finantza Departamentuak erabakitzen duenaren arabera.

  - Partzuergo horiek egiten dituzten epe luzerako zorpetze eragiketek Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurretiazko baimena beharko dute, Ogasun eta Finantza Departamentuak ezarritako baldintzetan.»
- Kontsortzioaren antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoa Estatutu hauetan aurreikusitakoari egokituko zaio eta ordezko izaerarekin, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeari, aurrekoa garatzen duten Autonomia Erkidegoko xedapenei, toki entitateei ezargarriak zaizkien gainerako xedapen legezko eta arauzkoei, eta Uraren Legeari eta gai hau arautzen duten sektoreko beste xedapen batzuei (5. art.).

Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak agintzen du partzuergoak atxikirik dauden administrazioko ondare-arauek arautuko dituztela.

Bestalde, ezargarria den honako arautegi hau azpimarratuko dugu:

- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 51/2012 Foru Dekretua, abenduaren 28koa, GLHko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legea onartzen duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.



GUSA Kongsortzioak soil-soilik partaidetutako sozietatea da eta honako hauek arautzen dute: bere Estatutu propioek, administrazioko legedi espezifikoak eta sozietate anonimoei ezargarriak zaizkien lege zibil eta merkataritzakoek. GUSAk Partzuergoaren bitarteko propio pertsonifikatu izaera du, SPKLren 32. artikulua agindutakoari jarraikiz.

Ondasun eta zerbitzuen edo inbertsioen kontratazioaren esparruan GUSA botere esleitzailerik da, SPKLren 3.3 artikulua arabera, eta bere kontratuak, 26. artikulua arabera, pribatuak dira; bada, kontratu horien prestaketa, adjudikazioa, ondorioak eta suntsitzea SPKLren 317tik 320ra bitarteko artikuluetan xedatutakoak arautuko ditu. Langileen kontratazioari dagokionez, ezargarria den arautegian garatzen diren arbitrariotasunaren interdikzio, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioetara meneratua dago (Enplegatuen Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina).

## A.2 AURREKONTUA, AURREKONTUKO ALDAKETAK ETA KONPROMISO-KREDITUAK

2021eko ekitaldiari dagokion Kongsortzioaren Aurrekontua 2020ko urriaren 21eko Batzar Orokorra onartu zuen, eta 2020ko abenduaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. 2021eko ekitaldiari dagozkion Kongsortzioaren eta GUSAREN urteko kontuak eta kontu bateratuak Kongsortzioko Batzar Orokorra 2022ko maiatzaren 27an onartu zituen.

### Aurrekontuko aldaketak

2021eko ekitaldian 1,9 milioi euroan onartutako aurrekontuko aldaketak oso-osorik Diruzaintza Geldikin bidez finantzatzen dira eta honako hauek dira:

- 2020ko ekitaldiko kreditu txertaketak, 890.923 eurorenak.
- Guztira 966.579 euroren kreditu gehigarriak, GUSARENtzako kapital-transferentzietarako kredituentzat. Kreditu gehigarri horiek ez dira 2021eko ekitaldian egikaritu eta oso-osorik 2022ko aurrekontuari txertatu zaizkio.

### Konpromiso-kredituak

Hona hemen 2021eko ekitaldi itxieran konpromiso-kredituen eta Kontu Orokorren Memorian barne hartutako konpromisoen xehakapena:

	Euroak milakotan	
	Konprom. kredituen egoera	K. Orokor. Memoria
Epe luzeko konpromisoak.....	-	4.236
URA eta GFARENtzako hitzarmenaren zirriborroa.....	4.068	4.068
Hitzarmenetan hitzartu gabeko konpromisoak.....	4.068	8.304
GFARENtzekin 2018ko hitzarmena (desjabetzeak barne) .....	2.996	3.339
Inbertsio-konpromisoak GUSAN .....	-	967
Beste txiki batzuk .....	411	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.475</b>	<b>12.610</b>

### A.3 IBILGETUA ETA DIRULAGUNTZAK, DOHAINZAK ETA JASOTAKO LEGATUAK

#### Ibilgetu ukiezina eta materiala

Kontu bateratuek eta banakakoek islatzen duten informazioa honako hau da:

	Euroak milakotan	
	2021	2020
Ziklo osoko sareen erabilera-eskubideak .....	6.978	8.156
Ziklo oso bakoitzeko ustiapen-eskubideak .....	3.885	4.683
Beste txiki batzuk .....	389	369
<b>IBILGETU UKIEZINA GUZTIRA</b>	<b>11.252</b>	<b>13.208</b>
GUSArri lagatako Partzuergoko azpiegiturak.....	388.068	395.792
Lursailak eta eraikuntzak .....	7.677	7.439
Instalakuntza teknikoak eta bestelako materiala .....	7.013	6.943
Abian dagoen ibilgetua .....	2.066	620
<b>IBILGETU MATERIALA GUZTIRA</b>	<b>404.824</b>	<b>410.794</b>
<b>IBILGETU BATERATUA GUZTIRA</b>	<b>416.076</b>	<b>424.002</b>
<b>KONTSORTZIOAREN KONTUAK</b>		
Ibilgetu materiala	1.480	535
<b>GUSA-REN KONTUAK</b>		
Ibilgetu ukiezina	399.318	409.000
Ibilgetu materiala	15.278	14.467

Honela, bada, Kongsortzioaren ibilgetuak indarreko Ibilgetu materiala jasotzen du eta GUSArri Ibilgetu ukiezinean, besteak beste, Kongsortzioak lagatako aktiboen ustiapen-eskubideak erregistratzen ditu, zeinak 2021eko abenduaren 31n 388,1 milioi euroren amortizazio kostu garbia baitu, eta ibilgetu bateratu guztiaren % 93,3 egiten baitu.

Ibilgetu bateratuak 8 milioi euro egin du behera 2021eko ekitaldian, nagusiki ekitaldiko amortizaziorako egin den 12,6 milioi euroren zuzkiduragatik eta ibilgetuan erregistratu diren 4,6 milioi euroren altengatik.

#### Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak

Kongsortzioko Egoeraren Balantzean “Dirulaguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak” kontuan jasotzen dira amaitu ez diren eta GUSArri laga ez zaizkion azpiegiturei dagozkien dirulaguntzak.

GUSArri “Dirulaguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak” kontuan erregistratzen du jasotako ibilgetu ukiezinarekin kostua eta kontu hori amortizazioaren arabera murriztuz doa, emaitzen kontuko dirusarrerari egotzen zaielako; esanguratsuen Kongsortzioak lagatako aktiboena da, zeinak 2021eko abenduaren 31n 388,1 milioi euro egin baititu eta data horretan GUSArri Ibilgetu ukiezinean jasoa baitago.



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan				
	Saldoa		Emaitzara	Saldoa
	31.12.2020	Gehikuntzak	aplikatzea	31.12.2021
GFAREN dirulaguntza.....	268	(*) 352	-	620
<b>KONTSORTZIOA</b>	<b>268</b>	<b>352</b>	<b>-</b>	<b>620</b>
Kontsortzioko ondasunak lagatzeagatiko dirulaguntza.....	395.793	1.298	(9.023)	388.068
Uraren ziklo integrala udal sareei lagatzeagatiko dirulag. ....	8.156	488	(1.666)	6.978
Bestelako dirulaguntzak.....	1.458	217	(64)	1.611
<b>GUSA</b>	<b>405.407</b>	<b>2.003</b>	<b>(10.753)</b>	<b>396.657</b>
Kontsortzioak finantzaturako ondasunak .....	(94.828)	(717)	2.208	(93.337)
<b>KONTU BATERATUAK</b>	<b>310.847</b>	<b>1.638</b>	<b>(8.545)</b>	<b>303.940</b>

(\*) 932 mila euroren gehikuntzak, eskualdatzeak kenduta, 580 mila euroan lagatako ibilgetuagatik.

Kontu bateratuetan Kontsortzioak finantzaturako ondasunak kendu dira eta kontuaren saldoa 303,9 milioi euro da, beste administrazio batzuetatik jasotako dirulaguntzengatik eta Kontsortzioak atxikipenean jasotako ondarearengatik; hona hemen xehakapena:

Euroak milakotan	
	2021.12.31
<b>GUSARI lagatako ondasuneng. jasotako dirulag.</b>	<b>243.097</b>
GFA .....	95.013
Eusko Jaurlaritza .....	84.741
Estatua.....	49.041
Kohesio funtsak .....	13.637
SPRI .....	553
Beste batzuk .....	112
<b>Kontsortzioko ondasuneng. jasotako dirulaguntzak</b>	<b>620</b>
GFA .....	620
<b>Kontsortzioak lagapenean jasotako ibilgetua</b>	<b>60.223</b>
Atxikipenean jasotako ondarea .....	51.634
Uraren ziklo integraleko udal sareak.....	6.978
Bestelako dirulaguntzak .....	1.611
<b>KONTU BATERATUAK</b>	<b>303.940</b>

#### A.4 ATXIKIPENEAN JASOTAKO ONDAREA ETA LAGATAKO ONDAREA

Kontsortzioak obrak eta instalazioak jaso zituen Norteko Konfederazio Hidrografikotik eta Kontsortziora atxikitako zenbait udaletatik, gehienak 1994an eratu zen unean, eta "Atxikipenean jasotako ondarea" kontuan daude jasoak 98,5 milioi euroren balioarekin. Ondasun horiek, Kontsortzioak eraikitako ibilgetuarekin batera, GUSARI laga zaizkie behin obrak amaitu ostean. Lagatako ondarean ondasun horiek eraikitzeke jasotako dirulaguntzak ere neteatzen dira eta honenbestez, Lagatako ondarearen zenbatekoa 224,9 milioi euro da.



Euroak milakotan					
KONTUA	Kostua	Amortizaz. zuzkid.	garbia	Dirulaguntzak	GUZTIRA
<b>Kontsortziotik atxikipenean jasotako ondarea</b>	<b>105.401</b>	<b>(*) (6.910)</b>	<b>98.491</b>	<b>-</b>	<b>98.491</b>
Atxikipenean jasotako ondarearen lagapena .....	105.401	(6.910)	98.491	-	98.491
GUSArri lagatako Kontsortzioko azpiegiturak .....	445.006	-	445.006	(318.585)	126.421
<b>Kontsortzioak lagapenean utzitako ondarea</b>	<b>550.407</b>	<b>(6.910)</b>	<b>543.497</b>	<b>(318.585)</b>	<b>224.912</b>
Amortizazio metatua GUSAn .....	-	(155.429)	(155.429)		
<b>GUSAREN Ibilgetu ukiezina</b>					
<b>Kontsortz. lagatako aktiboen ustiapen-eskubid.</b>	<b>550.407</b>	<b>(162.339)</b>	<b>388.068</b>		

(\*) Atxikipenean jasotako aktiboen lagapenean kostuaren eta amortizazioaren arteko bereizketari eusten zaio.

## A.5 ONDARE GARBIA ETA TALDEKO ENPRESEKIKO INBERTSIOAK ETA SALDOAK

Hona hemen Ondare Garbian kontsolidazioaren eragina:

Euroak milakotan	
2021	
Kontsortzioaren ondare garbia .....	(49)
GUSAREN ondare garbia.....	399.490
Ibilgetu finantzarioaren doikuntza Kontsortzioon .....	(5.844)
<b>ONDARE BATERATU GARBIA</b>	<b>393.597</b>

Kontsortzioak GUSA sozietatearen kapital sozialaren % 100ean parte hartzen du eta horren ondare balioa 2021eko abenduaren 31n 399,5 milioi euro da. Kontsortzioko kontuetan partaidetzaren balioa 5,8 milioi euro da, era honetan banatuta: “Kapital sozial”eko kontuetan 2,5 milioi euroren saldoa eta GUSAREN Balantzean 3,3 milioi euroren saldoa.

Kontsortzioaren Urteko Kontuen Memoriak aurkezpen-oinarrietan jasotzen du lehen mailako sareetan ura eta saneamendua hornitzeko azpiegitura (Kontsortzioak GUSAREN alde finantzatutakoa) laga izanak ondarean izan duen efektuak eragin duela nagusiki Kontsortzioaren ondare negatibo egoera (negatiboa 2020 eta 2021eko ekitaldien itxieran, hurrenez hurren 7,8 eta 48.475 euroan). Kontsortzioak zenbait erakunde publikorekin lankidetzaz hitzarmenak izenpetuak dituen heinean, zeinaren indarrez kapitalezko dirulaguntzen bidezko finantzaketa eskema bat finkatzen baita, eta urteko finantzaketa bat dagoen heinean, finantzaketa kanon baten kontzeptuarekin GUSAK jasotakoa, Kontsortzioak ez du arazorik etorkizuneko inbertsio konpromisoak gauzatu eta indarreko finantza zorraren mugaegunari aurre egiteko. Beraz, Kontsortzioak funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioaren arabera mamitu ditu bere finantza-egoerak, inongo arriskurik hartu gabe, hurrengo ekitaldian aktiboen edo pasiboen balioan aldaketa esanguratsurik eragin dezakeenik.

Azkenik, taldeko enpresen arteko saldoei dagokienez, GUSAk mailegu bat eman zion Kontsortzioari eta mailegu horren kobratzeko saldoa Sozietatean eta ordaintzekoa Kontsortzioan 1,2 milioi euro da. Maileguak eragiten duen interes tipoa Kontsortzioak kreditu-etxeekin duen zorraren batez besteko kostuaren pareko da eta ordaingarria izango da Kontsortzioak itzultzea erabakitzen duen unean, bai printzipala, bai interes metatuak ere.

## A.6 EPE LUZEKO HORNIDURAK

GUSAREN epe luzeko zuzkidurak honako kontzeptu hauek osatzen dituzte:

- Kontsortzioaren jabetzako azpiegitura mantentzeko funtsa (konponketa handiak eta lagatako aktiboak berritzea), Kontsortzioarekin egindako emakida-akordioaren ondorioz hartutako konpromisoen arabera. 2021eko abenduaren 31n zenbatekoa 60,9 milioi euro izan zen.
- Lehorteetarako hornidura.
- Ziklo osoa kudeatzeko akordioetarako, sareak berritzeko konpromisoak.

	Euroak milakotan					
	Konponketa handiak	Lagatako aktiboak berritzea	Lehortek	Ziklo osoa	Doiketak	GUZTIRA
Saldoa 2021eko urtarrilaren 1ean	7.200	50.754	735	1.775	(30)	60.434
2021eko zuzkidurak (ikus A.9)....	590	4.529	53	4.581	-	9.753
2021eko aplikazioak.....	(767)	(1.369)	-	(3.762)	-	(5.898)
<b>Saldoa 2021eko abenduaren 31n</b>	<b>7.023</b>	<b>53.914</b>	<b>788</b>	<b>2.594</b>	<b>(30)</b>	<b>64.289</b>

## A.7 KREDITU ERAKUNDEEKIKO ZORRAK

Kontsortzioak Inbertsioen Europako Bankuarekin 2021ean zituen maileguen kontu-mugimenduak honako hauek dira:

	Euroak milakotan				
Entitatea	Saldoa 2020.12.31	Gastua 9. kap.	Saldoa 2021.12.31n		
			Epe luzera	Epe labur.	Guztira
<b>Inbertsioen Europako Bankua</b>	<b>19.440</b>	<b>(5.427)</b>	<b>8.287</b>	<b>5.726</b>	<b>14.013</b>

Kontsortzioaren Egoeraren Balantzean Epe motzeko zorrak barne hartzen dute epemuga duten banku-maileguen 5,7 milioi euroez gain, ibilgetuko hornitzaileen 4.648 euroren zenbatekoa.

## A.8 NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA

Kontsortzioak 8,1 milioi euroren dirusarrerak erregistratzen ditu GUSAtik jasotzen duen urteko finantzaketako kanonaren kontzeptuan, zeinak ustiaketa gastu modura erregistratzen baitu (ikus A.9). GUSAk azpiegiturak finantzatzeko kanona fakturatzen du, guztira 7,8 milioi euroren zenbatekoarekin.

GUSaren negozio zifraren sarreraren xehakapena zenbateko garbiarekin honako hau da:

	Euroak milakotan	
	2021	2020
Ur salmentak altako sarean.....	5.435	5.728
Ziklo osoko salmentak .....	26.699	26.105
Azpiegituren kanona. Hornidura eta Saneamendu plana.....	7.795	7.798
Isurketak eta saneamenduak altako sarean .....	738	744
Bajako sarearen kudeaketa .....	398	361
Beste txiki batzuk .....	430	365
<b>GUZTIRA</b>	<b>41.495</b>	<b>41.101</b>

Sozietateak 32,1 milioi euro erregistratu ditu uraren ziklo osoaren kudeaketa-zerbitzuengatik. Denbora desfase bat dago aipatutako zerbitzua sortzen den aldiaren eta fakturazio aldiaren artean (hiruhilekoa), izan ere ekitaldi itxieran artean gauzatu gabe dago ur-kontsumoko kontagailuen irakurketa. Honela, bada, Sozietateak 2021eko abenduaren 31n 8,9 milioi euroren diru-sarrerak erregistratu ditu azken hiruhilekoaren kudeaketa zerbitzu horiekin loturik.

## A.9 HORNIDURAK ETA USTIAPENENKO BESTELAKO GASTUAK

Idazpuru hauen gastuaren xehakapena GUSAn honako hau da:

	Euroak milakotan	
	2021	2020
Salgaien erosketa .....	1.651	1.406
Beste enpresa batzuek egindako lanak .....	1.752	1.771
Beste kontzeptu txikiago batzuk .....	694	869
<b>HORNIDURAK GUZTIRA</b>	<b>4.097</b>	<b>4.046</b>

  

	Euroak milakotan	
	2021	2020
Azpiegiturak mantentzeko funtsari zuzkidura (ikus A.6).....	9.753	9.677
Partzuergoaren Saneamendu Plana: Azpiegituren kanona (ikus A.8) .....	8.100	8.000
Hornidurak .....	2.227	2.440
Errentamenduak eta kanonak .....	561	565
Beste zerbitzu batzuk .....	632	441
Zerbitzu profesional independenteak .....	305	345
Konponketak eta zaintza orokorra .....	296	258
Aseguru-primak .....	289	282
Beste txiki batzuk .....	72	61
<b>Kanpoko zerbitzuak</b>	<b>22.235</b>	<b>22.069</b>
<b>Merkataritzako eragiketen ondorioz zuzkiduren galerak, narriadura eta bariazioa</b>	<b>266</b>	<b>372</b>
<b>Bestelako ustiapen gastu txikiak</b>	<b>179</b>	<b>143</b>
<b>BESTELAKO USTIAPEN GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>22.680</b>	<b>22.584</b>

## A.10 PERTSONALEKO GASTUAK

Hona hemen GUSAko pertsonaleko gastuak:

	Euroak milakotan	
	2021	2020
Soldata eta ordainsariak .....	9.114	8.801
Gizarte Segurantzari kotizazioak .....	3.097	2.965
Pentsioetarako ekarpenak eta zuzkidurak .....	215	213
Beste gizarte zama batzuk .....	35	17
<b>PERTSONALEKO GASTUAK, GUZTIRA</b>	<b>12.461</b>	<b>11.996</b>

2021eko ekitaldian indarrean jarraitzen zuen 2018an sinatutako hitzarmen kolektiboak, zeina 2019ko abenduaren 31n amaitzen baitzen; izan ere, harik eta hurrengoa sinatu arte halaxe egitea aurreikusi zen hitzarmen horretan (2022ko martxoaren 23an sinatu zen, eta 2022ko apirilaren 7an argitaratu GAOn). Horri dagokionez, 2019ko ekitaldian % 1,8ko ordainsari-igoera aplikatu zen, eta ez da beste ordainsari-igoerarik izan 2020ko eta 2021eko ekitaldietan. 2022an sinatutako hitzarmen kolektiboak % 9,29534ko ordainsari-igoera aurreikusten du 2022ko ekitaldirako, eta 2023ko ekitaldirako KPIa gehi % 0,5eko igoera





ezarri da, baldin eta KPIa % 3koa edo txikiagoa bada, eta KPIaren igoera, KPIa % 3tik gorakoa bada.

GUSAREN plantilla 259 pertsonak osatzen dute 2021eko abenduaren 31n; horietatik 220 langile finkoak dira, 12 erretiro partzialeko egoeran daude eta 27 aldi baterako langileak dira.

23 langile finkori eman zaie alta 2019-2021 aldian (3, 11 eta 9 langile 2019ko, 2020ko eta 2021eko ekitaldietan, hurrenez hurren); prozesu horiek kanpoko enpresa espezializatuen bidez egin dira eta GUSAK osatu ditu. Gainera, 2021ean egindako langile finkoen kontratazioen ondorioz 7 alta gehiago daude, abenduaren 31n aldi baterako modura agertzen direnak, 12 hilabetez probaldian daudelako; horiek 2022an finko bihurtuko dira.

Langile finkoen kontratazioan aplikatu beharreko berdintasun- eta merezimendu-printzipioei dagokienez, honako alderdi hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Hautaketa-enpresek egindako iragarkietan lanpostuetarako ezarritako baldintzak baino ez dira jasotzen, eta horietako bat Gipuzkoako probintzian bizi izaten egoteko betekizuna da. Iragarki horietan ez dira sartzen baloratu beharreko merezimenduak, ez egin beharreko probak, ez eta azken elkarriketa ere.
- Kanpoko hautaketa-enpresak egindako hautagai-proposamenen txostenak gutxi gorabehera kuantifikatu besterik ez du egiten jasotako eskabideen kopurua, eta ez du egiaztatzen ez proposatutako hautagai-zerrendak osatzeko baliatutako prozesua, ez eta, gerora, GUSAKO langileekin batera egindako elkarriketen ondoren, proposatutako hautagaien balorazioa egiteko erabilitako irizpideak ere.
- Zenbaitetan, baloratutako hautagai-zerrenden azken hautaketak ez du justifikatzen kontuan hartutako hautagaiek duten balorazio bereko hautagaien kanporaketa.

Estatuko aurrekontu orokorren legeek langileen birjarpen-tasari dagokionez baldintza batzuk ezartzen dituzte ekitaldi batean langile finkoak gehitzeko, aurreko ekitaldian zerbitzu emateari utzi zioten langile finkoak aintzat hartuta, eta GUSAK ez ditu baldintza horiek kontuan hartu 2020ko eta 2021eko ekitaldietan.

	Euroak milakotan		
	2019	2020	2021
Aurreko ekitaldiko langile finkoen bajak .....	(4)	(5)	(2)
Ekitaldiko langile finkoen altak.....	4	7	7
<b>Birjartze-tasaren ondorioetarako bariazioa</b>	<b>-</b>	<b>2</b>	<b>5</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## A.11 AURREKONTUAREN ETA ONDARE-EMAITZAREN ARTEKO KONTZILIAZIOA

Kontabilitate publikotik eskuratutako Kontsortzioaren kontularitzako emaitzaren eta aurrekontuko emaitzaren arteko berdinkatzea honako hau da:

Euroak milakotan	
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA 2021</b>	<b>1.336</b>
Inbertsio errealak eta kapital transferentziak GUSArri .....	1.310
Maileguen itzulketa .....	5.427
GUSArri ibilgetua lagatzea .....	(719)
<b>EMAITZA 2021EKO KONTABILITATE PUBLIKOAREN ARABERA</b>	<b>7.354</b>

## A.12 ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

### A.12.1 KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAK

DESKRIBAPENA	Urtea	Euroak milakotan (BEZik gabe)						Akats.Egoera
		Eseleipena		Exekuzioa				
		Prozed.	Zenbat.	31.12..20	2021	31.12.21		
1. Energia elektr. hornidura GUSArri instalazioetan (2 urte) ....	2019	PIH	a.p.	2.043	2.212	4.255	Exek.	
2. Ur-kontagailuen hornidura eta instalazioa (2 urte).....	2019	PIH	894	363	424	787	Amaitua	
3. Lohi deshidrat. bildu eta balioztatzeko zerbitzua (4 urte).....	2020	PIH	a.p.	-	525	525	D Exek.	
4. HUAetarako kloruro ferrikoaren hornidura (2 urte).....	2020	PIH	a.p.	-	131	131	C Exek.	
5. Hornidura eta saneamendu lanak Oñatin .....	2020	AZL	252	-	249	249	A Amaitua	
6. EUTEak poliklorosulfatoz hornitzea (2 urte).....	2020	PIH	a.p.	-	86	86	C Exek.	
7. Energia elektr. hornidura GUSArri instalazioetan (2 urte) ...	2021	PIH	a.p.	-	(*)	(*)	(*)	
8. Tratam. biologikoa birmoldatzeko lanak Badiolegi arazteg. .	2021	AZL	1.358	-	292	292	B,D Exek.	
9. HUAak polielektrolitoz hornitzea (2 urte) .....	2021	PIH	a.p.	-	76	76	C Exek.	
10. Hornidura eta saneamendu lanak Orion.....	2021	AZL	269	-	222	222	A,B Exek.	
11. Hornidura eta saneamendu lanak Altzinen.....	2021	AZL	211	-	147	147	B Amaitua	
<b>GUZTIRA</b>				<b>2.406</b>	<b>4.364</b>	<b>6.770</b>		

(\*) Exekuzioa 2022ko otsailaren 1ean abiarazi zen.

AKATSAK	Euroak milakotan	
	Espediente kop.	Adjudikazioa (BEZa kenduta)
A Aplikatu gabeko ausarkeriazko baja.....	2	521
B Adjudikazioan sartu gabeko obra-unitateak barne hartzen dituzten obren likidazioak .....	3	1.838
C Balio zenbatesiak ez ditu pleguetan barne hartutako balizko aldatetako jasotzen .....	3	a.p.
D Barne kontrolerako sistemen irizpenetan aipatutako berriazko akatsak		



## A.12.2 ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOKO ESPEDIENTERIK GABEKO GASTUAK

GUSAn administrazio-kontratazioko espedienterik gabe izapidetu diren gastuak aztertuta, ikusi dugu 3, 6 eta 7 gastu-kontzeptu kontratatu direla (hurrenez hurren 613.451 euro, 614.201 euro eta 333.985 eurorenak) zegozkien prozedurak baliatu gabe, Horietarako, prozedura irekiak, prozedura ireki sinplifikatuak eta prozedura ireki sinplifikatu laburtuak egin behar ziratekeen, hurrenez hurren:

Deskribapena	Euroak milakotan (BEZik gabe)	Zenbat.
Aseguru-primak .....		(*) 289
Enpresako ibilgailuen hornidura .....		180
Telefono bidezko arreta-zerbitzua, uraren ziklo integraleko harpidedunei .....		144
<b>PROZEDURA IREKI BIDEZ IZAPIDETZEKO GUSTIRA</b>		<b>613</b>
Iturgintzako konponketetarako lehengaiak hornitzea .....		124
Laborategiko produktuen hornidura .....		81
Banaketa, frankeo eta kartazaletan sartzeko lanak .....		133
Kontagailuak irakurtzeko zerbitzua .....		116
Telefonia finkoko zerbitzua .....		(*)88
Ibilgailuak konpontzeko zerbitzua .....		72
<b>PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ IZAPIDETZEKO GUSTIRA</b>		<b>614</b>
Apraizko HUAN estalkiak konpontzeko lanak .....		68
Kontagailuen hornidura .....		48
Erreaktiboen hornidura .....		33
Bulegoak garbitzeko zerbitzua .....		56
Lan arriskuen prebentziorako zerbitzua .....		51
Hainbat HUAtan baheketa-hondakinak tratatzeko zerbitzua .....		49
Telefonia mugikorreko zerbitzua .....		29
<b>PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU LABURTU BIDEZ IZAPIDETZEKO GUSTIRA</b>		<b>334</b>

(\*) 2021eko maiatzean hasi zen lizitazioa, baina 2022ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean adjudikazioa.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ABREVIATURAS

CAE	Comunidad Autónoma de Euskadi.
Consortio	Consortio de Aguas de Gipuzkoa.
DFG	Diputación Foral de Gipuzkoa.
EDAR	Estación Depuradora de Aguas Residuales.
ETAP	Estación de Tratamiento de Agua Potable.
GUSA	Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, SAU.
IPC	Índice de Precios al Consumo.
IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido.
LCSP	Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.
PAA	Procedimiento Abierto Sujeto a Regulación Armonizada.
PAS	Procedimiento Abierto Simplificado.
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.



## I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa correspondiente al ejercicio 2021. La anterior fiscalización de la Cuenta General del Consorcio corresponde al ejercicio 2018.

La fiscalización abarca los siguientes aspectos:

- Legales: en las áreas presupuestaria, personal, contratación de obras, suministros y servicios y normativa sobre ingresos de derecho público. Dicha revisión comprenderá el ejercicio de fiscalización, sin perjuicio de las comprobaciones relativas a otros ejercicios que se estimen necesarias, por tener incidencia en el fiscalizado.
- Contables: se analiza si las cuentas del Consorcio, de Gipuzkoako Urak-Aguas de Gipuzkoa, SAU y las cuentas consolidadas se elaboran de conformidad con los principios contables que resultan de aplicación. Las cuentas de las dos entidades y las cuentas consolidadas han sido auditadas por una firma externa.
